

DIPLOMA BANAKETA. Sabin Arana Aldun Nagusia izan zan ospakizunean

INIGO AZKONA

ADAPTANET, andrazkoak informazinoaren teknologian

Novia Salcedo Fundazioak zuzenduta eta Enplegu eta Tebakuntza Sailaren laguntzaz burutu barri dan ADAPTANET egitasmoko 100 diploma banatu ebazan atzokoan, Aldundiko Atxiboan ospatutako ekitaldian, Sabin Arana Aldun Nagusiak. Egitasmoan partu daben ehun emakumeetatik % 15ek lana aurkitu dabe honezkero. Fundazio-

ko arduradunek aitaturakoaren arabera, informazio teknologien ganeko ikasketak, «emaitza oso onak lortuaz», jorratu izan dabez diplomadun barriok. Ikasgaiak hiru multzo nagusitan egituratu izan dira: oinarritzko ofimatika trebakuntza, Interneteko edukien ganeko kudeaketa eta lan munduan murgiltzeko beharrezko prestakuntza.

BIZKAIBAI TXARTELA. Astelehenean jarriko da martxan zerbitzua

Zerga alorreko gestinoak internetez egingo dira

Hasieran enpresari eta profesionalei zuzenduta egongo da

Haritz Gallastegi |

Ogasun eta finantza diputatu Javier Urizarbarrenak Bizkaibai txartela aurkeztu eban, atzo, Bilbon egindako pretsaurrekoan. Bizkaibai txartelari esker, internetez edo telefonoz egin ahal izango dira zerga alorreko gestino guztiak. «Orain arte beharrezkoa zan Ogasun bulegoetara joatea edozein operazino egiteko. Zerbitzu honi esker, azkar, seguru eta, erraz egin ahal izango dira gestino guztiak. Ganera, ez da zertan bidaiarik egin beharko», adierazo eban Javier Urizarbarrenak.

Astelehenetik aurrera Ogasun bulegoetan lortu ahal izango dan txartela herritar guztiek erabili ahal izango dabe. Holandabe, hasieran behintzat, enpresariei eta profesionalei zuzenduta egongo da. «Gure bulegoetan eskaintzen doguzan zerbitzu guztiak telefonoz eta

internetez emotea gura dogu, inongo salbuespenik barik. Hasieran, profesionalei eta enpresariei eskainiko jake zerbitzua erabilteko aukera, sasoi honetan eurei tokatzen jakue zerga aitortpena egitea. Ez dago inongo preferentziarik», azaldu eban ogasun eta finantza diputatuak.

Lehenengo fasean 8.000 enpresari eta profesionali bidalduko deusie Foru Aldundiak Bizkaibaia, «Ogasun Sailakaz hartu-emon gehien daukienei». Kopuru honen barruan sartzen ez diran zergadun guztiek, bagiletik aurrera izango dabe eskuragai Bizkaibai txartela, 2000 Errenta Kanpaina amaitu ostean.

Orain arte be egin ahal dira zenbait gestino internet bidez, baina beti be zergadunari dirua

jasotzea tokatzen jakonean. «Zerga aitortpenen dirua bueltatzea tokatzen jakunean interneta erabilten genduan, baina oinarritzko sistema zan, eta ez eban edozein gestino egiteko balio. Zergadunari ordaintzea tokatzen jakonean, derrigorez joan behar zan Ogasun bulegoetara», azpimarratu eban Urizarbarrenak.

BAGILERAKO

Bizkaibai txartela bagiletik aurrera eskuratu ahal izango dabe gura daben herritar guztiek

dea, pertsona fisikoendako, eta bestea urdina, pertsona juridikoei zuzendutakoa (entitateak...). Txartel honeek, BEZaren aitortpena, Lan Atxikimenean ordainketa telematikoa eta ordinketa zatikatuak egiteko aukera eskainiko dabez, bestea beste.

BILBO. Erakusketa egin gura dau opariokaz

EHk pribilegiotzat jotzen dauz uribilduko ordezkariak jasoten dabezan opariak

Hasier Rekondo |

EHko Udal Taldeak gogor salatu dauz Gabonetan uriburuko ordezkari politikoei jaso izaten daben opari sortaren neurribako erabilera. Atzo eskaintako pretsaurrekoan Arantza Urkaregi zinegotziak adierazotakoaren arabera, «onartezina da diru publiko mordoak gastatzea opariekaz».

Ezker abertzalearen ordezkariak «korrupzino kutsua dauan» jardura bertan behera lagatzea eskatuko

dau burutu beharreko urrengo udalbatzarrean.

Mozinoak erregistro baten beharra eta opari guztiakaz (maletak, zapiak, urrezko bandejak etabar) erakusketa burutu daiala agertuko dau, «uritarrek udal ordezkari guztiak jaso dabena jakin daien», ganeratzen dau Urkaregi.

Kapital publikoko enpresen (Bilbogaz edo Erakustazoka, besteak beste) erregaluen gastua bi milioi pezeta-tara heldu izan da zenbait kasutan, EHren esanetan.

LANA. Guztiak gura dauz lanean urte erdian

Lan Ekintzako ikasleen %27 lan merkatuan sartu da azken egitasmoan

Hasier Rekondo |

Bilboko Udalak kudeatzen dauan Lan Ekintza trebakuntza egitasmoak azken ikasurtean jardun ziran ikasleen % 27 lan merkatuan murgiltzea lortu eban.

Maria Asis Fernandez erakunde zuzendariaren esanetan, «Udalak, INEMek eta Europako Gizarte Fondoak eskaintako 100 milioi pezetatako aurrekontua izan dau», Lanbideen Etxea izenburuko egitasmoak.

Parte hartu eban 70 ikasleek eraikuntza arloagaz lotutako trebakuntza teoriko-

praktikoa jaso eban. Honez ganera, Lan Ekintzak sei hilabeterako kontratatu ebazan ikasleok.

Kontratuak iraun eban bitartean, 18-25 urte bitarteko gazteak uri inguruneak barritze eta bermoldatze lanean jardun ziran, uriko ondatsun gordetze ekintzak sustatu eta hedatzeko asmotan.

«Trebakuntza ekimenon helburua merkatu laboralean emoten ohi diran eskarenen aurrean benetako giza eta profesional mailako trebakuntza eskaintzea da», ganeratu eban Asis Fernandez egitasmo zuzendariak.

Hemen da

MERKEALDIA

MERKEALDIA

MERKEALDIA

MERKEALDIA

Guisasola Sport

Posta, 19 - 48005 Bilbo / Poza Lizentziatua, 23 - 48011 Bilbo

Egun guztian zabalik. Aparkalekua doan